

ETORKIZUNA  
EGUNIK  
EGUN

140 free

info+ www.naiz.eus

# GARA

2024 | 3 | 19

ASTEARTEA  
XXVI. urtea | 9:02. zk  
1,70 euro



## Korrikak bero-bero jarri ditu Gasteizko ilunabarra eta euskaltzaleen gogoak

Testua: Garazi CASTAÑO - Alai SIERRA | Argazkia: Endika PORTILLO | FOKU

19.30 pasatxo zirenean Korrika Gasteizen sartu zen Abetxukotik, eguna Araban barrena ibili ondoren. Hiriburuko hirigunera gerturatu ahala, lasterkarien multzoa gero eta handiagoa egin zen, jendetza bilakatu arte. Epel zen ilunabarra goxo bihurtu zuten euskaltzaleen pausok, hatsak eta aldarrikapenek. Euskararen aldeko lasterketa goizaldean sartu da berriz Nafarroan, eta iluntzean Gipuzkoara jauzi egingo du. >2-3

## EBAU 2025: opciones tipo test y rebaja por ortografía

La nueva EBAU, que se aplicará a partir del próximo curso, incluirá preguntas tipo test, las faltas de ortografía bajarán un 10% la nota y el alumnado podrá elegir entre distintas preguntas, según se recoge en el borrador del proyecto. >14

# Israel provoca otra matanza en un nuevo ataque a Al-Shifa

El Ejército sionista volvió a convertir el hospital, ya asedado antes, en un campo de batalla con un asalto con tanques, soldados, drones y francotiradores. Detuvo a periodistas que estaban allí.

En un ataque de madrugada, el Ejército israelí volvió a convertir el hospital Al-Shifa, después de tres asedios anteriores, en un campo de batalla en el que con todo tipo de armamento provocó decenas de muertos, detuvo a otros tantos palestinos

y obligó a desplazarse a cientos de personas refugiadas en sus instalaciones. El Ministerio de Sanidad de Gaza alertó del peligro que corren ahora esos desplazados. El Ejército sionista arrestó, además, a los periodistas que estaban en el

### EDITORIALA

## Pasar de las palabras a los hechos

lugar, por lo que se desconoce el alcance de la destrucción y el número total de víctimas. Por su parte, la FAO alertó de que la hambruna «es inminente» en la zona norte de Gaza, por lo que reclamó acceso inmediato a la Franja. >4-6

## Beskoitzeko ikastolari alokairua luzatu dio Herriko Etxeak

Beskoitzeko ikastolaren afera fase berri batean sartu da: Herriko Kontseiluak alokairu kontratua urtebetez luzatzeko proposamena babestu zuen bart. Hortaz, ikastolak ez du egungo erakina utzi beharko ikasurtearen amaieran eta Seaskak geroa prestatzeko astia dauka. Fabienne Ayensa alkateak dimisioa eman zuen bozketa-oren ostean. >naiz.eus

## La UE aprueba una ley para extraer el 10% de las materias primas

Los Estados de la Unión Europea dieron ayer su visto bueno definitivo a su nueva ley de materias primas críticas, que busca reducir la dependencia de otras potencias para obtenerlas, fijando metas de extracción, procesado y reciclado. En concreto, la UE deberá extraer localmente un diez por ciento de su consumo anual de estas materias en 2030. >16

## Putin seguirá en el Kremlin hasta 2030 tras lograr su mayor triunfo

Vladimir Putin permanecerá hasta 2030 en el Kremlin tras haber sido reelegido el domingo de forma holgada para un quinto mandato de seis años, lo que le permitirá, aseguró, la construcción de una Rusia más fuerte. Junto a su victoria en unas elecciones sin oposición, el presidente ruso celebró el 10º aniversario de la anexión de Crimea con un baño de masas en Moscú. >18-19

EGUNEKO GAIA 01 KORRIKA 23

# Arabian murgildu ostean, Gasteizen hamaika izan ziren Korrikarekin bat

Nafarroako bideak atzean utzi eta Arabako Errioxatik, Mendialdetik, Trebiñutik eta Zuiatik, besteak beste, igaro ondoren, Korrika Gasteizera iritsi zen atzo iluntzean. Lekukoa esku batetik bestera pasatzen zen bitartean, asko eta asko euskararen alde bat egiten joan ziren eta jendetza bildu zen Arabako hiriburuan barrena lasterka.

G. CASTAÑO A. SIERRA | GASTEIZ

Korrikak Nafarroari Lizarraldekotik gero arte esan zion, eta ilunpetan iritsi zen Arabara, Kanpezutik. Bihurgunez beteriko errepideetan barna, mahastien artean argitu zuen egunak. Malda asko izan ziren atzo, baina horrek ez zuen arabarren grina zapuztu. Goraka harrapatu zuten lasterketa Arabako foru suhiltzaileek, kaskoak eta buzoak soinean. Goiztiarrak izan ziren, 8.10 aldean jaso zuten lekukoa Elvillarretik Guardiara bidean, Erentzun ikastolako txiki-txoer eskutik.

Goranzko bihurguneak gehitzen joan ziren, Guardiara iritsi arte. Eskualdeko institutu eta ikastetxe ugariatiko ikasleek korrika egin zuten. Haien tzentz atzera baina astelehena dibertigarriagoa izan zen. Arabako ESiko langileek ere parte hartu zuten. Baten batek laneko arropa kentzeko astirik ere ez zuen izan. Horrez gain, udal-letxe askok hartu zuten lekukoa: Oiongoak, Bilarkoak, Lapuebla de Labarcaok, Lezakoak... Arabako herri txikiak merezi duten ikusgarritasuna izan zuten astelehenean.

Muinotxo txikiak dirudite Arabar Errioxa eta Mendialdeko herriek. Aldapan diren kale estu eta zirikituz beterik daude. Eta horrek zailtasunak gehitzen dizkio berez konplikatua den Korrikari. Dena konpon liteke, ordea, jarrera baikorra bada. Hala gertatu zen Urizaharran. Erdi Aroko hiribildua XIII. mendean sortu zen, eta garaiko ondare guztia mantentzen ez bada ere, harreresiko hego atariak zutik dirau. Arku horretatik igarotzeko erronka zaila zuen Korrikak, eta plana ongi prestatuta zuten antolatzaileek.



Jendetza bildu zen Arabako hiriburuan zehar, beste aldarrien artean, euskararen alde. Endika PORTILLO | FOKU

## TREBIÑUN

**Trebiñutik ere igaro zen euskararen aldeko lasterketa, eta azterketak euskaraz egiteko aukera defendatu zuten, bertan euskara ikastea ezinezkoa da eta. Hala azaldu zuen Jose Luis Moreno bizilagunak, Korrika bere ataritik pasatu ahala.**

Aurreko furgonetaren atzetik iritsi ziren korrikalariak herriera, eta furgoneta gabe egin zuten gora, harreresiko atariraino. Bestaldean zain zen bigarren furgoneta. Lasterketaren buruan jarri zen bigarren hori, eta elizari buelta ematera zihoala, hara!, kalean ezin kabitu gelditu zen furgoneta. Paralisis parentesi txiki bat sortu zen: korrikalariak beste bide bat hartu zuten eta, herritik ateratzerako, zain zuten lehen furgoneta. Bigarrenak manio-brapare bat egin, eta segituan hartu zuen buztana. Jakin badakigu Korrika ez dela sekula gelditzen, eta 23. edizioa ez zen salbuespen bat izango.

Korrika eguerdian iritsi zen Trebiñura. Atzerapen apurtxo batekin zetorrela, zein kaletatik igaroko ote zen... marmarrik urduritasunarekin nahasi ziren. Eta bat-batean maldako behealdetik musika doinuak entzuten hasi ziren. Badator. Ehun bat lagun bildu dira kaletan zehar. "Azterketak euskaraz" leloa duten afixak berri ikusi ditugu. Ipar Euskal Herriko aldarriak zentzu berezia hartu du Trebiñun, bertan euskara ikastea bera baita euskaltzaileen ezina.


Mendialdea zeharkatu ondoren, Gorbeialdera iritsi zen. Bazkalosteak ez zuen inor alferatu, jendetzak egin baitzuen lasterka, besteak beste, Izarran

eta Murgian. Zuiako mugan gelditu zirenen artean bazen jarraitzeko gogoa zuenik ere. «Gasteizeraino joango nintzateke», esan zion emakume batek ondokoari, adrenalinareneko efektua oraindik gainditu ezin.

**Jendetza Gasteizen 19.30ak** pasata, Korrika Gasteizen sartu zen Abetxukotik. Laminaciones Arreguiko langileek hartu zuten lekukoa. Jarraian Arriaga-Lakua auzotik igaro zen eta Michelingo langileek lekukoa Gasteizko suhiltzaileei pasatu zieten. Hirian sartu ahala, jende pilo gero eta handiago egiten joan da, euskararen alde korrika egitera batu direnei esker.



Eguraldia lagun, gauez ibili zen Korrika Gasteiztik. Endika PORTILLO | FOKU



Korrika Trebiñun barrena. Jaizki FONTANEDA | FOKU

Enpresetako langileez gain, batik bat ikastetxeek eta institutuek hartu zuten lekukoa eramateko erantzukizuna, eta 'Azterketak euskaraz' aldarria zeramaten zenbait pankarta ikusi ziren berriz ere. Txiki-txikiak nahiz nagustak izan dira Korrikaren buru astelehen honetan, baina hori ez da aitzakia izan erritmoa galtzeko.

Arabako Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Gasteizko Udalak eta Gasteizko Parlamentuak ere beraien kilometroak izan zituzten, EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde politikoez gainera. Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuak, Arabako Euskal Pilota Elkarteak, Indarra Euskal Kultur Elkarteak, Blusa eta Nesken Komisioak, Jimmy Jazzek eta Gasteizko Garbiketa Zerbitzuko Langileek ere lekukoa eraman dute.


Zabalganatik, Alde Zaharretik eta Salburuatik igaro ondoren, Arkaietatik Gasteiz atzean utzi zuen Korrikak, 23.00ak aldera, Dulantzira bidean, lautadan abiatzeko. Ostiralean berriaz Arabara itzuliko da.

**AUZORIK AUZO**

Gasteizko auzo guzti-guztietatik igaro ez bazen ere, Zaramagatik, El Pilarretik, Txagorritxutik, Gazalbidetik, Lakua-Arriagatik, Sansomenditik, Ariznabarratik, Mendizorrotzatik, Adurtzatik, Desamparadostik, Anglotik, Zabalgunetik eta Alde Zaharretik korrika egin zuen jendetzak euskararen alde.



Arkaitz Rodriguez, Frankon lekukoarekin. Jaizki FONTANEDA | FOKU



MARTXOAK 19